



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 3a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, itzalpeko bidesarien ereduaren aldeko apustuan Nafarroako Gobernuak jarraitzen dituen irizpide orokorrei buruzkoa. Jabeldura erretiratzea (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioa euskalduntzeko plan estrategiko bat diseina dezan, hizkuntza eskubideak bermatzeko. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Konstituzio Auzitegian aurkeztu duen errekurtsioa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkakoa. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da salestarren ikastetxea lekuz aldatzeari buruzko espedientea geldiaraz dezan, harik eta funts publikoentzat kosturik izanen ez duela ziurtatu arte. Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri sar ditzan Gizarte Politiketako Departamentuaren jarduketa-ildo nagusietan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako kirol federazioen eta kirol klubien diru-laguntzei lotutako neurriak har ditzan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen baitu konpromisoa har dezan posta-zerbitzu publikoaren alde. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten baitu abortuaren legearen erreforma atzera bota delako. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu autokontsumo elektrikoaren garapenaren aldeko manifestuarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu egiaz eta zeharo inplika dadin Tuterako KPF enpresako lan-gatazka konpontzen. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, 2014-2020 Osasun Plana oso-osorik, Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen bezalaxe, betetzeari buruzkoa, Eva María Gorri Gil andreak egina (22. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren burutzak manifestazioetara deitzeari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (22. or.).
- Galdera, C hepatitisaren duten gaixoak senda ditzaketan medikamentuak emateko erabakiaren aplikazioari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Nafarroaren kontabilitate-sistemaren makromagnitudeak kalkulatzeko SEC-2010 arau berriari buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak Foruzaingoa Espainiako Itzuliak Nafarroan egindako etapako trafikoaren kontrolatik at uzteko izan zituen arrazoiei buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (24. or.).
- Galdera, 2014-2020 Osasun Planari eta plana taxutzeko prozesuari buruzkoa, Eva María Gorri Gil andreak egina (25. or.).
- Galdera, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitakoen kostu ekonomikoari buruzkoa, Eva María Gorri Gil andreak egina (25. or.).
- Galdera, haur-obesitatea dela-eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak egindako txostenari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (26. or.).
- Galdera, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa- eta errentamendu-kontratua Los Arcos Motorsport-i esleitzeari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (26. or.).
- Galdera, animalienaganako tratu txarrak direla-eta jarritako salaketan izapidetzeari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa berrantolatzeko Planaren garapenari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (28. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2014ko irailaren 4ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

OSOKO ZUZENKETA

**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI**

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, ondoko Foru Lege proiektua Gobernuari itzul dakion: "Toki Ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako Tributuetan parte hartzeko duten Funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen."

Zioak: Abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearekin, hautsi egin zen Nafarroako toki entitateen finantzaketaren egonkortasuna. Lege hori indarrean sartu izanaren ondorioz, Nafarroako udal asko itolarri ekonomikoan daude, eta egoera hori larrituz doa aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, hainbestearaino non hainbat udalek zailtasun oso handiak dituzten irauteko eta, horrela, neurri drastikoak hartu behar izan dituzten: langileak kaleratu, udal zerbitzuak kolokan jarri, edo, besterik gabe, zerbitzu horiek kendu.

Lege hori ordeztuko lege proiektuarekin gainditu egin beharko litzateke ente publikoen finantzaketan gertaturiko atzeraldi hau, eta berrindartu ente horiek herritarrentzako duten zerbitzu-eskaintza. Ente horiek, bestalde, zehazte aldi batean daude; izan ere, lege proiektu bat aurkeztu da Nafarroako legedia egokitzearen Kongresuak onetsitako 27/2013 Legea. Lege berriak, era berean, sendotuta utzi beharko litzateke zenbait finantzaketa-irizpide Toki Maparen Legea onesten denerako.

Hala ere, Gobernuaren lege proiektu honek ez du bermatzen, ezta aukerarik ematen ere, Nafarroako toki entitateek benetako autonomia izan dezaten. Aitzitik, iraunarazi egiten du finantzaketaren behin-behinekotasun egoera, eta hori ez da batere lagungarri Toki Administrazioaren egonkortasun ekonomiko eta politikorako. Toki entitateentzako transferentzia arrunten funtserako planteatzen den hasierako diru-kopurua gutxiegi da, argi eta garbi, udal gastuen finantzaketa globalerako, baina are dagoenari –gero eta kolokagotan– ozta-ozta eusteko ere.

Aurreko guzti horri erantsi behar zaio toki entitateek 2015ean hirugarrenez izanen dutela Toki Inbertsioen Planaren luzapena. Toki inbertsiorik gabeko hirugarren urtea izanen da, eta, horren ondorioz, gure udalen oinarriko azpiegituren hondatzea deigarria izaten hasiko da. Gure ustez, lege proiektu serio batek ezin du errealitate hau pasatzen utzi konponbide minimo bat planteatu gabe, konponbidea behin-behinekoa bada ere.

Halaber, eskumen eskuordetuak finantzatzeko politika murriztailearen eraginez, eskumen horiek finantzatzeko diru-laguntza finalistak 2012tik sistematikoki utzi ditu Nafarroako Gobernuak bete gabe, aurrekontu ezaren aitzakiapean. Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolak, musika-esko-

lak, berdintasuneko teknikarien kontratazioa ,euskararen sustapenerako jarduerak, oihan-lanak eta basoak mantentzeko lanak... Horiek erakusten dutena da –eta adibide batzuk bakarrik dira– zehazki berezkoak ez dituzten baina funtsezkoak diren zerbitzuen finantzaketan udalek izandako murrizketa gogorak. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak ezin du aukera hau pasatzen utzi gutxieneko seriotasun bat izanen duen finantzaketa bat planteatzeko, behin-behinekoa izanda ere.

Azkenik, ezin gara bat etorri lege hau aprobe txatu izanarekin ez udalen lana bultzatzeko –horretarako erabili behar zen–, baizik eta, erabat kontrako bidetik, udal horietako askoren gain errepresio ideologikoa areagotzeko, finantzaketaren bidezko zehapen-araubide bat ezartzen baitu, proiektu honekin zerikusirik batere ez duten beste lege batzuk betearazteko. Jokabide horrek ez ditu aintzat hartzen ez zorrotzasun juridikoa ez eta gutxieneko printzipio demokratikoak, zeinak irizpide arruntak behar luketen Nafarroako legedian.

Arrazoi horiek guztiak direla-eta, erretiratu egin behar da foru lege proiektu hau, eta beste bat behar da, Nafarroako toki entitateen beharrian errealei modu eraginkorrean aurre eginen diena.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

2. artikulua 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. “2015eko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten parte hartzeko funtsaren zuzkidura 260.580.332 eurokoa izanen da hasieran, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da”

Zioak: Funtsaren zenbatekoa osotara 60 milioi euro handitzea proposatzen dugu; honakoak lirateke kontzeptuak, hain zuzen: 20 milioi gehiago transferentzia arruntetarako; 30 milioi kontusail berri bat sortzeko, zehazki xedapen libreko funts bat izateko; eta 10 milioi toki entitateek beren gain hartzen dituzten eskumen eskuordetuen finantzaketa handitzeko, finantzaketa hori drastikoki murriztu baita azken bi urteotan.

2. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

2. artikulua 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. 2016ko ekitaldian funtsak izanen duen zuzkidura zehazteko, 2015. urterako ezarritakoari gehituko zaio kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izandako portzentaje igoera, ekainetik ekainera neurtua, gehi beste bi portzentaje-puntu”

Zioak: Gutxieneko zenbatekoa iruditzen zaigu udalek beren zerbitzuei eta toki entitateek beren egiturei duintasunez eusteko, murrizketa edo kaleratze gehiago egin behar izan gabe.

3. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

2.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

1. 2015eko ekitaldian, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten parte hartzeko funtsaren zuzkidura 220.688.073 eurokoa izanen da”

Zioak: Funtsaren zenbatekoa, osotara, 20 milioi euro handitzea proposatzen dugu; kontzeptu hauetan banatuta, hain zuzen ere: transferentzia arruntetarako aurreikusten den zenbatekoa handitzeko, 10 milioi euro, eta beste 10 milioi euro, berriz, inbertsioetarako xedapen libreko funtsetarako bestelako laguntzen kontusail bat sortzeko. Kopuru horien justifikazioa kasuko zuzenketa partzialetan jasota dago, eta amaierako emaitza gisa zuzkidura orokor hori egiten dute.

4. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aldatu egin direnez lege honetan onetsitako finantza-zenbatekoak, baliorik gabe gelditu da 1. idatz-zatian entitate bakoitzarentzat ezarritako banaketa, eta beste kalkulu bat egin beharko da.

5. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. “171.474.537” euro dioen tokian “180.974.537” euro esan behar du.

Zioak: Funtsa 6,5 milioi handitzea, banaketa bidezkoagoa izan dadin.

6. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

3. artikularen 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Transferentzia arruntak: 191.474.537 euro.”

Zioak: Transferentzia arruntetarako funtsaren zenbatekorako proposatzen den guztizko handitzeari –hau da, proiektuan jasotakoari– beste 20 milioi euro gehitzea, Transferentzia Arrunten Funtsaren gaurkotze errealik eza zuzentzeko.

7. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCÍA
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

3.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“3. artikulua. Banaketa.

Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa, 2015eko ekitaldirako, honela banatuko da:

1. Transferentzia arruntak: 181.474.537 euro.”

Zioak: Nahiz eta jabetzen garen aurrekontu-zailtasunak daudela, proposatzen dugu proiektuak aurreikusitakoa baino 10 milioi gehiago jartzea Funtsaren transferentzia arruntetarako. Hona arrazoiak:

a) Biztanle bakoitzak egiten duen ekarpenari erreparatuta, transferentzia arruntetarako Nafarroan aurreikusitako zenbatekoa txikiagoa da zergaraubide propioa duten Nafarroako Foru Komunitatetik hurbileko beste errealitate batzuek dutena baino.

b) Toki entitateak konpentsatu beharra dago; izan ere, 2008an krisia hasi zenetik, Funtsaren

bilakaera ez da inondik ere izan epe honetan metatutako KPIa berdintzeko beharko zuenaren adinakoa, eta denbora honetan, gainera, hazi egin dira hala populazioa nola beharrak. Gainera, Gobernuak toki entitateei eman dizkien diru-laguntza finalistek ere beheranzko joera izan dute.

8. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

3. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letra zuzenketa. Hona testu berria:

“c) Beren interes komunak babesteko eta sustatzeko toki entitateek eraturako federazio eta elkarteei: 390.718 euro.”

Zioak: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 72.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko izaten diren diru-laguntza publikoak eskuratzekoan hobeki lotzea berdintasunaren eta aukera berak izatearen printzipioei. Hain zuzen, Toki Administrazioari buruzko Legearen 71. eta 72. artikuluek toki asoziazionismoaren aniztasuna bermatzen dute, eta hori kontraesanean dago Gobernuak orain egindako proposamenarekin.

9. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

3. artikuluko 2. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa, d) letra. Hona testua:

“d) Toki azpiegiturak finantzatzera bideratutako kapital transferentzia libreki erabakitakoak: 30.000.000 euro, toki entitateen artean banatuko direnak, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 5. artikuluan ezarritako formula erabiliz.”

Zioak: 2009tik 2012ra bitarteko Toki Inbertsioen Plana luzatu zenez eta, horrenbestez, udalek beren oinarriko azpiegiturak hobetzera bideratutako inbertsio berriei ekin ezinik jarraituko dutenez, beharrezkotzat jotzen dugu kopuru hori sartzea udalek berek zehaztu beharrekoak diren inbertsioetarako.

10. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCÍA****FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

3.2. artikuluari d) letra gehitzeko zuzenketa.
Hona testua:

3.2 artikulua.

“d) Xedapen libreko kapital transferentziak: 10.000.000 euro, toki entitateen artean banatuko direnak, horretarako formula gisa erabiliz 2009tik 2012ra bitarteko Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 5. artikuluan ezarritakoa.”

Zioak: 2009tik 2012ra bitarteko Toki Inbertsioen Plana luzatuta dagoenez eta, horrenbestez, udalek ezin izanzen dietenez ekin inbertsio berriei, beharrezkotzat jotzen dugu kopuru hori sartzea udalek berek zehaztuko dituzten inbertsioetarako.

Uste dugu libreki erabakitzen diren inbertsioak direla hobekien egokitzen zaizkionak udal autonomiaren printzipioari, horietatik baitira tokiko eskumenak betetzeari dagozkionak eta kasuko udalak bere kasa erabakitzen dituenak, dituen lehentasunen arabera.

Halaber, tresna bat izan daiteke udalek lagun dezaten berpizte ekonomikoan eta lurrari itsasitako inbertsioen bidezko enplegu-sorreran.

2015erako proposatutako zenbatekoa hauxe izanzen litzateke: 16/2008 Foru Legean 2009tik 2012ra bitarteko aldirako libreki erabakitako inbertsioetarako ezarritako guztizko kopurua zati lau egitearen emaitza.

11. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

3. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.
Hona testua:

“3. Toki entitateei eskuordetu zaizkien edo beraiek beren gain hartu dituzten eskumenak finantzatzeko diru-laguntza finalistek murrizketa konpentsatzeko laguntzak: 10.000.000 euro.

Banaketa eginen da finantzatu beharreko zerbitzua, eta toki entitate bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera.”

Zioak: Hainbat udal zerbitzuek jasotzen zituzten diru-laguntza finalistek murrizketa ugari izan dituztenez, zerbitzu horien jarraipena gaur egun ez

dago ziurtatuta. Diru kopuru hau ezartzea izan daiteke, modu proportzionalean banatua, toki entitateek funtsezko zerbitzuok ematen jarraitzeko modu bakarra.

12. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluko e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Kontseiluaren arabera, ordenamendu konstituzionalaren aurkakoa delako.

13. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

7. artikuluko e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai honi buruzko txosten juridiko desberdinek argi uzten dute ezabatutako letrak aipatutako transferentzia arrunten ekarpenek ez dutela diru-laguntza izaerarik. Inongo argudio juridikok ez du babesten beste gai bati buruzkoak diren eta eduki desberdina duten beste lege batzuk urratzeagatik zehapenak, kasuko funtsen galera dakartenak, sartu ahal izatea Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan parte hartzeko Foru Legean.

Nafarroako Kontseiluaren konklusioak argiak ziren horri dagokionez, legebiltzar honetako zenbait taldek eskatu eta erakunde horrek eginiko txostenean agertzen denez.

14. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCÍA****FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

7. artikuluko e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoagatik Nafarroako udalei ematen zaien konpentsazioa foru lege honen 7. artikuluan dago araututa, Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren parte baita. Hori kontuan hartuta, toki entitateen baliabide propio bat da, eta, gure iritziz, ezin da baldintza gisa jarri beste lege batzuk bete beharra, e) letran ezartzen den bidetik.

Uste dugu, bestalde, Foru Lege proiektu honetan proposatutako e) letra dela-eta, berriro nabarmendu behar dela, antzeko kasu bat baitzen, zer esan zuen Nafarroako Kontseiluak 2013ko apirila-

ren 9an emaniko irizpenean, non abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearen 15. g) artikuluari buruz adierazi baitzuen Konstituzioaren 140 eta 142. artikuluen kontrakoa izan zitekeela.

Horregatik guztiagatik, letra hori eta ezartzen duen baldintza kentzea proposatzen da.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen bat gehitzeko zuzenketa.

“Hirugarren xedapen gehigarria. 1. Nafarroako Gobernuak formula bat zehaztuko du 2015erako –erregelamendu batean garatuko da–, eskumen propioen ondoriozko zerbitzuak emateak edo oinarritzko beharrei aurre egiteak zorra eragin eta zor hori konpentsatu beharrean dauden udalek % 2 handiagoak izan ditzaten transferentzia arruntak, ehuneko hori baita, Nafarroako Gobernuak aurreikusi duenez, BPGa datorren urterako haziko dena.

2. Formula hau bera ezarriko da 2016rako, kasu beretarako, eta, betiere, BPGa KPIa baino handiagoa baldin bada.

Zioak: Udalek parte hartu ahal izatea Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituen diru-sarrereren handitzeetan, baina ez modu generikoan, baizik eta oinarritzko beharrei aurre egiteko gastuen araber.

16. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako toki entitateentzako konpentsazio funts berezia.

2014ko Nafarroako Kontu Orokorrak aurkeztutakoan ikusiko balitz Nafarroako toki entitateek 2014an zehar jasotako transferentzia arruntek, kontzeptu guztiak kontuan hartuta, diru-laguntza finalistak barne direla, gutxiago egiten dutela 2013an jasotakoek baino –2014ko KPIarekin eguneratuta–, alde hori berdintzeko konpentsazio-funts berezi bat sortuko da, zeina 2016ko ekitaldian toki entitateen artean banatzeko izanen baita.

Mekanismo bera aplikatuko da urtebete geroago ere, Nafarroaren 2015eko Kontu Orokorrak aurkeztutakoan”.

Zioak: Herrietako bizilagunen beharrak berdinak edo handiagoak diren honetan, toki entitateei gastu arruntetarako ematen zaizkien funtsen urritze erreal bat gertatzen ari da; nahi duguna da joera hori geldiaraziko duen berme-mekanismo bat ezarri.

17. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

1. eranskina kentzeko zuzenketa.

Zioak: Banatu beharreko zenbatekoak aldatu egiten direnez, aurkeztutako taula baliorik gabe gelditzen da.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2014ko uztailaren 4ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

OSOKO ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, zeinaren bitartez eskatzen baita foru lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

Zioak: Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak berarekin ekarri du toki entitateei aplikatzekoa zaien arau-esparrua nabarmen aldatzea, atarian aldarrikatzen den helburu laukoitzarekin: “udal-eskumenak argitzea bikoiztasunak gertatu ez daitezen”, “tokiko administrazioaren antolakuntza-egitura arrazionalizatzea, finantza esparruko eraginkortasun-, egonkortasun- eta iraunkortasun-printzipioekin bat etorri”, “finantza-eta aurrekontu-kontrol zorrotzagoa bermatzea” eta “ekimen ekonomiko pribatua erraztea, administrazioen neurritz kanpoko esku-hartzeak saihestuz”.

Egiazki, erreformaren funtsezko ardatzak dira toki entitateen gastu publikoa gutxitzea, kontrol ekonomikoa eta kontrol politikoa. Helburua lortze aldera, tokiko autonomia ahultzen da, hain zuzen ere hura hartuta “tokiko entitateek arazo publikoen parte garrantzitsu bat ordenatu eta kudeatzeko duten eskubidetzat eta gaitasun efektibotzat, betiere legearen barruan, beren erantzukizunpean eta beren biztanleen mesedetan” (Tokiko Autonomiaren Europako Gutuneko 3. artikulua).

Izan ere, 27/2013 Legeak autonomia gutxiago eta kontrol, esku-hartze eta kanpoko tutoretza handiagoak dakartza. Baldin eta tokiko autonomiaren bereizgarria eskumenak (hau da, tokiko botere publikoa) eta finantzaketa (eskumen horie-

taz baliatzeko esleitutako baliabideak) badira, lege honek buruz behera jarri du tokiko autonomia definitzen duten bi elementu horien arteko erlazioa, halako moduz non toki entitateen jarduteko gaitasuna jartzen baitu haiek dauzkaten baliabideen menpe: “autonomia zara finantza-ikuspuntutik nahikotasuna daukazun neurrian”.

Horrek berarekin dakar drastikoki murriztea herritarrengandik hurbilen dagoen erakundearen zerbitzu-zorroa, nahiz eta bera izan herritar horiek beren arazoei konponbidea emateko eta beharri-zanak asetzeko helden dioten lehenengo baliabidea. Lege honetan, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak nagusitzen dira, eta hartzen dituen neurri guztiek taxu horixe dute, Tokiko Autonomiaren Europako Gutuneko printzipioak guztiz ahaztuta eta are sunsituta ere, nahiz eta barne zuzenbidea izan eta toki araubideari buruzko legeak integratzeko eta interpretatzeko iturri lehenetsia izan.

Aurkeztutako lege proiektuak konponbide partzial eta behin-behinekoa eman nahi dio 27/2013 Legeari buruzko Nafarroako legediari, Nafarroan toki administrazioa berrantolatzeke eta toki enteen eskumenak finantzatzeko lege bat onesten ez den bitartean. Ez dirudi, ordea, halako legerik onetsiko denik legegintzaldi honen amaiera baino lehen, “tokiko maparako lantaldea” deritzonak pairatzen duen blokeoa dela eta.

Behin-behineko egokitzapen horrek eskumen batzuk eta haien finantzaketa zedarritu nahiko lituzke.

Argi dago aurkeztutako lege proiektu honek ez dituela lortzen dauzkan helburuetatik bakarra ere. Lehenbizi, ez dituelako argitzen toki entitateek garatu beharreko eskumenak, aipatutakoez haragato, honako salbuespenekin: oinarritzko osasun laguntza, gizarte zerbitzuen arloko prestazioen parte bat eta hezkuntzaren arloko eskumenen parte bat. Bigarrenik, definizio-ezarekin jarraitzen duelako eskumen eta zerbitzu horien finantzaketa dela-eta. Horrek betikotu egiten du Nafarroako tokiko enteen beren finantzaketa planteatzeko orduan daukaten behin-behinekotasuna eta ziurgabetasuna.

Baldin eta 27/2013 Legeak daukan alde positiboena bada erkidegoetako administrazioek toki entitateei eskuordetutako eskumenen finantzaketa osoa bermatzen duela, aurkeztutako lege proiektu-

tua tresna bat bihurtzen da Nafarroako Gobernuari erantzukizun hori kentzeko, zeren eta ontzat ematen baitu udalei eskuordetutako eskumenen finantzaketarako laguntzak sistematikoki murrizteko jokabidea, horixe baita orain arte egin duena. Bereziki deigarri gertatzen da lege proiektu honen onespének ekarriko lukeela, halaber, uztailearen 1eko 16/2014 Legea de facto gaikuntzarik gabe uztea, hain zuzen ere lege horrek konponbidea eman baitzion udalen 0-3 urteko haur eskolen finantzaketa zela-eta Hezkuntza Departamentuak sortutako arazoari.

Gure ustez, 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren eta 2/2012 Legearen azken xedapenetako hirugarrenaren edukia ez ditu inolaz ere bermatzen Nafarroak toki araubidearen arloan daukan eskumen historikoak, zeren eta gure erkidegoa araubide komuneko diputazio soil baten pare jartzen baitu, kasu guztietan aplikatuz Estatuko lege horien printzipio nagusiak. Izan ere, xedapen gehigarri horren eta azken xedapen horren testuaren inspirazio-irizpidea antzinako printzipio uniformatzailea da: “foruak berresten dira, monarkiaren konstituzio-batasuna ezertan ere kaltetu gabe”.

Horrenbestez, aurkeztutako foru lege proiektuaren xedea da, soilik, partzialki determinatzea –jada aipatu den bezala– 27/2013 Legearen norainokoa, toki entitateen arrazionalizaziorako eta finantza-iraunkortasunerako araudi horrek inposatzen dituen neurrien aplikazio osoari eutsita, haien eragina neutralizatzeko eta are samurtzeko ahaleginik egin gabe ere, baliatutako foru-eskumenek ahalbidetu bezala.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko Bat atala aldatzeko zuzenketa. Horren bidez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 3. artikuluko 1. idatzatiaren testua aldatzen da. Hona testu berria:

“1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteen izaera dute:

- a) Administrazio barrutiak
- b) Kontzejuak

c) Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Komunitatea, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea, Aralarko Elkartea eta foru lege honek indarra hartzen duenean dauden izaera tradizionalako gaineko elkarteak.

d) Udalerri bat baino gehiago biltzen dituzten entitateak, Nafarroako Foru Komunitateak foru lege bidez sortuak, eta zerbitzu administratiboen batasunak.

e) Mankomunitateak

f) Eskualdeetako batasunak

g) Toki partzuergoak”.

Zioak: Proposatzen dugu legean berariaz jasotzea, une honetatik aurrera, Aralarko Elkartea toki entitate bat dela, haren arduradunek horri buruz egin duten eskaera jasoz.

2. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko artikulua bakarreko Bi atalari (46.3 artikulua) d) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“d) Administrazio zerbitzuen batasun berri bat eratzeko, nahitaez eskatuko da entitate berriak ukitutako udal guztietako osoko bilkurek gehiengo osoz onets dezatela batasun horretan sartzea”.

Zioak: Udalen egituran eta identitatean eragin zuzena duten erabakiak hartzeko beren autonomiari eusten zaio.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bakarreko Hiru atalaren (212.4 artikulua) barruan “borondatezko izaerako” hitzak sartzen dira. Hona testu osoa:

“4. Foru lege honen 3. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, toki entitatearen izaera izanzen dute izaera desberdineko administrazio publikoek, soilik udal eskumeneko nahitaezko zerbitzuak emateko, sortzen dituzten borondatezko toki partzuergoek, zerbitzu horien konplexutasun teknikoa eta tamaina ekonomikoa direla-eta beharrezkoak direnean Nafarroako Lurralde Estrategiaren eremuak baino

handiagoak diren jardute-esparruak, edo legez hala ezartzen denean”

Zioak: Borondatezko izaera nabarmendu nahi dugu, bereziki 20.000 biztanle baino gehiagoko udalei dagokienez. Udal horiek, izan ere, eskumen berekiak dauzkate, Toki Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25. eta 26. artikuluen arabera –artikulu horiek Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak aldatu zituen–.

4. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Lehen xedapen gehigarria. Osasun, gizarte zerbitzu eta hezkuntza arloetako udal eskumenak.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du toki administrazioaren arloan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikuluan aitortua eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarrian berretsi eta zehaztua; horrenbestez, eskumen horretaz baliatuta, lege horrek indarra hartu baino lehen udalerriek berezko zituzten edo bere gain hartutako eskumenak, ondotik zehazten diren gaietakoak eta aipatutako legearen lehen, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aipatzen direnak, orain arte bezala erabiliko dituzte toki entitateek, Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautzen dituen foru legearen arabera onetsi beharreko finantzaketa-sistema berriak indarra hartu bitarte, alegia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den foru legeak. Aipatutako gaiak hauexek dira: oinarrizko osasun laguntzaren eta osasun arloko ikuskapen zerbitzuen kudeaketan parte hartzea, gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapen eta gizarteratzekoak ematea, bai eta lege horren hamabosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren hezkuntza arlokoak ere.”

Zioak: Udalen 0-3 urteko eskolen gaineko eskumenaren aipamena kentzen da. Eskumen hori beste zuzenketa batean zehaztuko da, 16/2014 Foru Legean onetsitakoa jasota.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriaren amaieran lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Haur eskolei dagokienez, haien finantzaketa eginen da Udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroen finantzaketa arautzen duen uztailearen 1eko 16/2014 Legean jasotakoaren arabera.”

Zioak: Nafarroako Gobernuari exijitu nahi diogu osorik ordain dezala haur eskolen finantzaketa dela-eta udalekin adostutako zatia.

6. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Osasun, gizarte zerbitzu eta hezkuntza arloetako udal eskumenak.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du toki administrazioaren arloan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikuluan aitortua eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarrian berretsi eta zehaztua; horrenbestez, eskumen horretaz baliatuta, lege horrek indarra hartu baino lehen udalerriek berezko zituzten edo bere gain hartutako eskumenak, ondotik zehazten diren gaietakoak eta aipatutako legearen lehen, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aipatzen direnak, orain arte bezala erabiliko dituzte toki entitateek. Aipatutako gaiak hauexek dira: oinarrizko osasun laguntzaren eta osasun arloko ikuskapen zerbitzuen kudeaketan parte hartzea, gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapen eta gizarteratzekoak ematea, bai eta lege horren hamabosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren hezkuntza arlokoak eta haur hezkuntzako lehen zikloko haur eskolen gainekoak ere.

Foru Komunitateko Administrazioak behar diren baliabide ekonomikoak jarri beharko ditu udalen finantza-askitasuna bermatzeko, eskumen horietaz baliatu ahal daitezen, Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautzen dituen foru legearen arabera onetsi beharreko finantzaketa-sistema berriak indarra hartu bitarte, alegia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den foru legeak.

roako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den foru legeak.”

Zioak: Jotzen dugu egokia dela toki mailako udal eskumen berekien gisara mantentzea (gutxienez ere, Nafarroako tokiko maparen erreformaren eredu berria finkatzen ez den bitartean) Estatuko lege berriaren bitartez autonomia erkidegoei eskualdatutako eskumenak (oinarrizko gizarte zerbitzuak, tokiko medikuntza-kontsultategiak edo haur hezkuntzako ikastetxeak).

Alabaina, ezinbesteko gertatzen da legeak berak Gobernuak konprometi dezala titularrak diren toki entitateei eskuratzera zerbitzu horiek behar bezala eman daitezten bermatzeko behar diren baliabide ekonomikoak, ez dadin gerta berriki gertatu dena Nafarroako Gobernuak 0-3 urteko haur hezkuntzako ikastetxeak direla-eta gaur egun ordaindu beharreko ekarpenaren finantzaketaren inguruan.

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria osorik kentzeko zuzenketa. Nafarroako hiri hondakinen kudeaketa integrala antolatzeko lege ekimena.

Zioak: Uste dugu gai honek batere zerikusirik ez duela Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen gaurkotzearekin –Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak aldatu zuen lege hori– eta hura Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari aplikatzearekin.

20.000 biztanletik gora izan eta arloan eskumen berekia duten udalen borondatea ezagutzeko aukera kendu da; izan ere, haiak erabaki beharko bailukete ados dauden ala ez Nafarroako hiri-hondakinen kudeaketa integralean egiten den aldaketa honekin.

Gure ustez ez da lege honetan ebatzi beharreko gai bat; izan ere, zirkularrak igorri dituzten edo beren legedia Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legeari egokitzeko legeak egin dituzten erkidegoetatik bakarrak ere ez du eman hondakinen kudeaketa integralari buruzko araurik.

8. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Nafarroako hiri hondakinen kudeaketa integrala antolatzeko lege ekimena.

2016ko ekainaren 30a baino lehen, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari foru lege proiektu bat igorriko dio, Nafarroako hiri-hondakinen kudeaketa integrala arautu eta antolatzeko. Toki entitateek parte hartu beharko dute testu horren taxuketan.

Foru lege proiektu horrek kudeaketarako eredu bat zehaztuko du, Foru Komunitateko lurralde eta populazio ezaugarriekin bat datorrena eta ingurumenaren arloan indarra duen araudia betetzen duena, eta, horrekin batera, finantzaketarako esparru bat ezarriko du, zerbitzuari finantzaketaren aldetik eustea bermatuz eta lurraldeen arteko berdintasun eta elkartasun printzipioak errespetatuz.

Lege erregulazio horrek indarra hartu arte, hiri hondakinen tratamendurako zerbitzua foru lege hau argitaratzen den unean ardura hori bere gain hartuta duten entitateek jarraituko dute ematen.”

Zioak: Ezinbestekotzat jotzen da gaur egun hondakinen arloko eskumenak baliatzen dituzten toki entitateek parte har dezatela arau-proiektu horren taxuketan.

9. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Ulertuko da haur hezkuntzako lehen zikloko haur eskolen gaineko eskumena toki entitateei eskuordetu zaiela, eta finantzatuko da udal titular-tasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroen finantzaketa arautzen duen uztailaren 1eko 16/2014 Foru Legean ezarritakoaren arabera, harik eta haien kostu osoaren ordainketa bermatzeko onetsi beharrekoa den Nafarroako toki entitateen finantzaketa-sistema berriak indarra hartzen duen arte.”

Zioak: Udalen 0-3 urteko haur eskolen finantzaketa bermatzen duen uztailaren 1eko 16/2014

Foru Legearen indarrari hura eta betetzeko betebeharrari eusten zaie.

10. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak indarra hartu aurretik Nafarroako Gobernuak Nafarroako toki entitateei guztiz edo partzialki eskuordetutako eskumenak, bai eta toki entitate horiek Nafarroako Gobernuaren onarpen esplizitu nahiz inplizituarekin baliatu izan dituztenak ere –besteak beste, gazteriaren arloko tokiko planak eta haien jarduerak (11/2011 Foru Legea), genero-berdintasuneko tokiko planak eta haien jarduerak, musika-irakaskuntzaren eta udalen musika eskolen kudeaketa eta euskara sustatzeko jarduerak–, Nafarroako Gobernuak toki entitateei eskuordetutako eskumentzat joko dira.

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna izanen da eskumen eskuordetu horiek guztiz finantzatzea, salbu eta finantzaketa horri buruzko aldean arteko akordioak besterik jasotzen bada.”

Zioak: kontua da aipatutako eskumenen eta antzeko egoeran dauden beste batzuen jarraitutasuna bermatzea, eta haien finantzatzea 27/2013 Legeak eskuordetutako eskumenetarako finkatzen duen moduan.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposatzen dugu zioen azalpeneko azken lerrokada ken dadila. Honakoa dio lerrokada horrek: “Azkenik, lege esleipen bat ezartzen da, Nafarroako hiri hondakinen kudeaketa integrala antolatzeke bidea emanen duen erregulazioa egiteko; izan ere, beharrezkoa da arau esparru bakarra izatea, Europar Batasunean hondakinen kudeaketaren arloan dauden eskakizunekin bat datorrena eta foru lurralde osorako kudeaketa bateratuaz arduratuko den entitatea ezartzen duena, ingurumenaren aldetik garrantzia handia duen zerbitzu publiko baten finantzaketari eustea bermatze aldera. Helburu horrekin bat, eta hondakinen kudeaketarako eredu berria ezarri bitarte, bidezkotzat jotzen da aurreikuspena ezartzea, hiri hondakinen tratamendurako egun ematen den zerbitzuan eragile berririk izan ez dadin”.

Zioak: Gure ustez, gai honek ez du zerikusirik Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeari gure erkidegoaren foru sistema juridikoa egokitzearekin.

Gainera, Nafarroako hiri-hondakinen kudeaketa integralaren arloko eskumena, 20.000 biztanletik gorako udalen kasuan, udal horiexena da, eta haiei dagokie erabakitzea, beren borondatez, zerbitzu hori emateko moduari buruz, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25. eta 26. artikuluetan jasotakoaren arabera –artikulu horiek gero Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak aldatu zituen–, eta bat dator Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek adierazitako irizpidearekin.

Atal hori lege honen edukitik kentzen bada, inongo zentzurik ez du hari zioen azalpenean eusteak.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, itzalpeko bidesarien ereduaren aldeko apustuan Nafarroako Gobernuak jarraitzen dituen irizpide orokorreari buruzkoa.

JABELDURA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Txen-txo Jiménez Hervás jaunak aurkezturiko jabeldura erretiratu izanari dagokionez. Jabeldura itzalpeko bidesarien ereduaren aldeko apustuan Nafarroako Gobernuak jarraitzen dituen irizpide orokorreari

buruzkoa zen, eta 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioa euskalduntzeko plan estrategiko bat diseina dezan, hizkuntza eskubideak bermatzeko.

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Administrazioa euskalduntzeko plan estrategiko bat diseina dezan, hizkuntza eskubideak bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren hitzaurrean azpimarratzen da hizkuntzak babestu eta sustatzearen garrantzia demokraziarako. Aipatutako Eurogutunak herrialde bakoitzeko hizkuntza politika arautzen ez badu ere, argi zehazten du zeintzuk izan behar diren hizkuntza bat babesteko eta sustatzeko oinarriko neurriak.

Gutunak, 7. artikuluan, hizkuntzei buruzko politikak definitzerakoan, dio kontuan hartu behar direla hizkuntza horiek erabiltzen dituzten taldeek adierazitako beharizanak eta gurariak. Ildo horretatik, funtsezkotzat jotzen dugu euskararen erabi-

leraren normalizaziorako prozesuan behin baino gehiagotan adierazitako gabeziei erreparatzea.

Egun indarrean dagoen araudiak ezartzen duen zonifikazioak oztopatzen ditu euskararen berreskurapena eta garapena, eta hiritarrak ondare kulturaletik urruntzen ditu, aukera berdintasuna urratuz. Euskara babestu, sustatu eta bultzatzeko Euskararen Legeak aldaketa sakona behar duela defendatzen dugun arren, uste dugu hori ere ez dela behar bezala garatu, eta irakurketa murrizta egiten dela, aitortzen dituen eskubideak ere bermatu gabe. Oroitarazi behar da Nafarroako Gobernuak bermatu behar duela Euskararen Legeak 10.1. artikuluan dioena, eta horretarako beharrezkoak diren baliabidek paratuko dituela:

10. artikulua

1. Herritar guztiak, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.

Horretarako, neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko, progresiboki eskubide honen erabilera bermatzeko.

Hau guztia kontuan izanik, aurkezten dugu honako ebazpen proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premiatzen du administrazioa euskalduntzeko plan estrategikoa diseina dezan, herritarrek administrazioarekiko harremanak euskaraz izateko aitortua duten eskubidea bete ahal izateko: diagnostikoa, helburuak, lehentasunak, epeak, metodologia, jarraipen tresnak...

2. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premiatzen du hizkuntza eskubideak eta euskarazko zerbitzua bermatuko dituen plantilla organikoko hizkuntza eskakizunak berrius ditzan, eta beharrezkoa den neurrian doitu ditzan, behin adituekin aztertuta, beharrak antzemanda eta irizpide berriak finkatuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premiatzen du dagoeneko lanean ari diren langileak euskalduntzeko plangintza bat egin dezan, lehentasunak ezarri eta paratutako helburuen erdiespen mailaren jarraipena eginez.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premiatzen du berrazter ditzan Administrazioan euskara babesteko eta sustatzeko hartzen dituen neurriak, eta hizkuntza politika eraginkorragoa martxan jar dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Foru Parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da erretira dezan Konstituzio Auzitegian aurkeztu duen errekurtsioa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkakoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita erretira dezan Konstituzio Auzitegian aurkeztu duen errekurtsioa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Marisa de Simón andreak, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen du erretira dezan Konstituzio Auzitegian aurkeztu duen errekurtsua, Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko Legearen aurkakoa.

Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak ekimen asko onetsi izan ditugu abortuaren legearen aldaketa arbuizatzeko eta indarrean den legea babesteko, bai eta haurdunaldia Nafarroako osasun publikoan eten ahal izan dadin exijitzeko. Nafarroako Gobernuak, ordea, Nafarroako gehiengo soziala aintzat hartu gabe, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkako errekurtsua jarri zuen 2010ean, eta ez du aukerarik ematen haurdunaldiaren borondatezko eteteak osasun-sistema publikoan egin ahal izan daitezen.

Errekurtsuak bere garaian ere ez zeukan zentzu demokratikorik; izan ere, ez ditu errespetatzen ez emakumeen eskubideak, ez Nafarroako herritarren gehiengoaren borondatea ere. Baina PPreko Gobernuak Abortuaren Lege proiektua erretiratzea erabaki ostean, are zentzu gutxiago dauka gehiengo sozialaren babesa duen lege indardunaren aurkako errekurtsu bat mantentzeak.

Horregatik guztiagatik:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du erretira dezan Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren aurka Konstituzio Auzitegian jarrita daukan errekurtsua.

2. Nafarroako Parlamentuak zorianak eman eta aintzatespena adierazi nahi dizkie herritarrei oro har eta, zehazki, emakumeei, beren mobilizazioarekin egiazko protagonista izan baitira zera lortzeko, emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideek ez dezaten paira historikoa izanen zen atzerakada bat.

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da salestarren ikastetxea lekuz aldatzeari buruzko espedientea geldiaraz dezan, harik eta funts publikoentzat kosturik izanen ez duela ziurtatu arte.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita salestarren ikastetxea lekuz aldatzeari buruzko espedientea geldiaraz dezan, harik eta funts publikoentzat kosturik izanen ez duela ziurtatu arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Txema Mauleón Echeverriak, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da salestarren ikastetxea lekuz aldatzeari buruzko espedientea geldiaraz dezan, harik eta funts publikoentzat zero kostuko finantzaketa ekarriko duen akordio bat sinatu arte.

Iragan irailaren 23ko agerraldian, Sustapeneko kontseilariak adierazi zuen bere konpromisoa dela salestarren ikastetxea bere egungo kokalekutik Sarrigurenera eramateak funts publikoei inolako kosturik ez ekartzea.

Agerraldian, "Salestarrak Eguesibar" udalez gaindiko proiektu sektorialaren urbanizazio proiektu-

tuaren berri eman zen: urbanizazioaren kostua 5,1 milioikoa izanen da, eta Nasuvinsari eta Nafarroako Gobernuari 2,8 milioi euro dagozkie hortik.

Orobat adierazi zuen gaurkotu egin behar direla hasierako aurreikuspenak (60 milioi euro inguru lortzea ikastetxeak egun hartzen duen lurzatiaren salmentatik eta operazio osoak 50 milioiko kostua izatea), bai diru-sarrerei bai gastuei dagokienez, txikiagoak izanen baitira bi kasuetan.

Halere, bere ahozko konpromisoa gorabehera, ez dago idatzizko inolako akordiorik edo hitzarmenik zeinetan ezartzen den Nafarroako Gobernuak edo haren mendeko ezein entitatek ez dituztela inolaz ere beren gain hartuko Sarrigurengo ikastetxe berriak eragindako kostuak eta operaziotik heldu diren gainerako gastuak, baldin eta salestarren orubearen salmenta aski ez bada gastu horiek ordaintzeko.

Hori guztia gutxi balitz bezala, operazio horretarako aurreikusitako epeez ere ez zen informatu, horretarako eskaerak behin eta berriro egin baziren ere, ez eta Nafarroako Gobernuak edo haren mendeko entitateek aurreratu beharreko diru publikoaz, hartu beharreko balizko maileguez, defizit publikoan –eta, horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ezarrita dituen mugetan– horiek izan lezaketen eraginaz, eta are larriago dena, Nasuvinsaren helburua izan behar duen egitekoaren garapenean –hots, industria-lurzoruaren sustapena eta mota guztietako etxebizitza publikoen sustapena– izan lezaketen eraginaz ere.

Etxebizitzaren eskaria eta prezioak gainbehera etorri diren testuinguru honetan operazioak zalan-tza ekonomiko handiak eragiten dituzenez gero, uste dugu gutxienez ere beharrezkoa dela operazioaren alderdi ekonomiko guztiak alde aurretik adostea ikastetxearen arduradunekin eta esku hartzen duten gainontzeko eragileekin, halako moduan non ez duen inolako arriskurik edo kosturik izanen funts publikoentzat. Operazio arriskutsua da, are ziurgabetasun handiagoa eragiten duena, ikusita salestarren ikastetxea egun dagoen inguruan egiten saiatu diren beste batzuen porrota; esaterako, Leire kalekoa.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea geldiaraz dezan salestarren ikastetxea Sarrigurenara eramateko espedienteari buruz hartu beharreko erabaki oro.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzea juridikoki froga dezan salestarren ikastetxearen espedienteak ez diela inolako kosturik ekarriko Nafarroako Gobernuaren edo haren mendeko entitateen funts publikoei.

3. Nafarroako Gobernuak premiatzea salestarren ikastetxea Sarrigurenara eramateko proiektua bazter dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri sar ditzan Gizarte Politiketako Departamentuaren jarduketa-ildo nagusietan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait neurri sar ditzan Gizarte Politiketako Departamentuaren jarduketa-ildo nagusietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Gizarte Politiketako Departamentuaren jarduketa-ildo nagusiak bultzatzeko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Iragan irailaren 24an, Gizarte Politiketako kontseilariak agerraldia egin zuen kasuko batzordean,

departamentuaren jarduketa-ildo nagusiak azaltzeko.

Parlamentuak, legeak hala aginduta, Nafarroako Gobernuaren jarduna bultzatzeko eginkizuna dauka; halatan, bidezkoa da ezartzea Legebiltzarraren aginduz Gizarte Politiketako Departamentuak zer jarduketa-ildo nagusi garatu behar dituen hemendik legegintzaldia bukatu arte.

Horrenbestez, Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauek sar ditzan departamentuaren hurrengo hilabeteotarako jarduketa-ildo nagusien artean:

1. Familiaren aldeko ekintzak garatzea, honako zutabea den aldetik: gizartea, nagusiak, adingabeak, ezgaituak, mendekotasuna dutenak eta indarkeria matxistaren biktimak.

2. Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako laguntzak hobetzea.

3. Gazteei laguntzeko politikak.

4. Ohitura osasungarriak sustatzeko programak; bereziki, gizarte-esparru guztietan kirola egitekoak.

5. Enplegua sustatzeko neurriak; bereziki, prebentzioa eta laguntza ematea, gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden edo pairatzen duten pertsonen kasuan.

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako kirol federazioen eta kirol klubetako diru-laguntzei lotutako neurriak har ditzan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako kirol federazioen eta kirol klubetako diru-laguntzei lotutako neurriak har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako kirol federazioen eta kirol klubetako diru-laguntzei lotutako neurriak har ditzan.

2013ko urriaren 28an, Nafarroako Parlamentuan osatutako Kirolaren Mahaiak aho batez onetsi zituen zenbait ondorio, geroago aho batez onetsi zen adierazpen instituzional batean jaso zirenak.

Ondorio horien artean bi nabarmendu behar dira:

– Batzorde misto bat sortzea, zeinean Foru Komunitateko kirol arloko eragileek ordezkaritza izanzen baitute. Batzorde horren eginkizuna izanzen da kirol klub eta federazioei diru-laguntzak emateko foru aginduetan onesten diren deialdiak arautuko dituzten irizpideak zehazteko proposamenak aztertu, adostu eta aurkeztea.

– Diru-laguntzen deialdietan eskabideak eta gastuen justifikazioak bideratzeko eta BEZaren aitortpenetarako administrazio prozesuak bizkortzea eta erraztea.

Ondorio horiek atera ziren, hain zuzen ere, kirol federazioentzako diru-laguntzen 2013ko deialdiaren foru aginduak arrisku bizian jartzen zuelako, haien ustez, beren bideragarritasuna.

Gatazka heldu zen 207/2013 Foru Aginduko eta 163/2014 Foru Aginduko 12. oinarritik, zeinaren bigarren idatz-zatiak honako hau ezartzen baitu:

Deialdiaren atal bakoitzerako aurrekontuaren %100 egin izanaren justifikazioa egin beharko da, hartarako diru-laguntzarik onetsi bada. Justifikatutakoa aurrekontua baino gutxiago baldin bada, proportzioan egokituko da zenbatekoa azken likidazioa onesten duen ebazpenean.”

Federazioen ustez, irizpide horrek larriki zigortzen ditu beren lana zentzuz eta efizientziaz egiten duten federazioak, daukaten dirua baino gehiago gastatzen ez dutenak; izan ere, beren ahalmenetik goiti gastatzera behartzen ditu, baldin eta emandako diru-laguntzaren % 100 jaso nahi badute, nahiz eta diru-laguntzak aurrekontu osoa ez estali.

2012ko urriaren 16an egindako agerraldian, orduan Gizarte Politiketako kontseilaria zenak, Pejenaute jaunak, bere taldeak izanzen zituen jarduketako oinarriak azaldu zituen –taldea osatzen zuten, besteak beste, egungo kontseilariak eta bai orduan, bai gaur egun, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren zuzendari kudeatzailea denak–. Kirol atalari dagokionez, oinarrietako bat zen “laguntza ekonomikoak ezartzea, ahal den modurik zaluenean”, bai eta “Nafarroa eredu nazional bat izatea kirol proiektuen arloan, laguntza deialdi bat eginez kirol-antolamendua nahiz gure jokalarien jatorria nafarra izatea erraztuko duten irizpideekin eta baremoekin, beren bideragarritasun ekonomikoa bermatuko dutenak”.

Horrenbestez, eta Gizarte Politiketako Departamentuak berak 2012ko urriaren emandako bi agindu horiek betetzeko, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2015erako alda dezan Nafarroako kirol federazioei diru-laguntzak emateko konstante hartu beharreko oinarri arautzaileak onesten dituen foru agindua, bertan zalutasun-irizpideak jasotzeko eta burokrasia sinplifikatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kirolaren Mahaiaren agindua betez batzorde misto bat sor dezan, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren eta kirol klub eta federazioen artekoa, haiei eragiten dieten diru-laguntzak arautzen dituzten irizpideak adosteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat aurki dezan

2013ko eta 2014ko diru-laguntzetarako, federazioei beren bideragarritasuna eta biziraupena ahalbidetuko dizkiena, kontuan hartuta delegazio bidez betetzen dituztela berez Nafarroako Gobernuari dagozkion zenbait eginkizun.

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen baitu konpromisoa har dezan posta-zerbitzu publikoaren alde.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du anbigutasunik gabeko konpromisoa har dezan posta-zerbitzu publikoaren alde, eta behar diren prozedurak taxutu ditzan zerbitzu hori optimizatzeke.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua, Alderdi Popularrarena, premiatzen du ez dezan inolako pausorik eman herritarrentzat funtsezkoa den zerbitzu horren pribatizazioa ekar dezakeenik.”

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten baitu abortuaren legearen erreforma atzera bota delako.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazi nahi dio nafar jendarteari, abortuaren kontrarreforma atzera botatzea lortu baita borroka sozial eta politikoaren bidez

2. Nafarroako Parlamentuak mugimendu feministari eskertu eta aitortu nahi dio 40 urtean zehar, eta ofentsiba berri honen aurrean ere, egindako lan ideologikoa zein mobilizatzailea, eta horren

bidez eztabaida gatazkaren muinean kokatu izana: emakumeona dela gure gorputza, eta gurea erabakia.

3. Nafarroako Parlamentuak emakumeon eskubideen defentsan bere konpromisoa adierazten du, eta nafar jendartea animatzen du emakumeon eskubideak defendatzen jarraitzera, atzerapausorik ez onartzera, eta eman daitezkeen eraso berrien aurrean tinko mantentzera.”

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu autokontsumo elektrikoaren garapenaren aldeko manifestuarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du autokontsumo elektrikoaren garapenaren aldeko manifestuaren sinatzaileen aldarrikapenekin, uste baitu aukera-nitxo handi bat dela hori, Nafarroako Foru Komunitateak urte hauetan guztietan energia berriztagarriak garatze eta ezartze aldera egin dituen ahaleginak bultzatzen dituena, eta familientzat eta enpresentzat onuragarria delako.

2. Nafarroako Parlamentuak, manifestuaren sinatzaileek bezala, aukera hain on honen aurrean erregulazio posibilista bat eskatzen dio Espainiako Gobernuari, bai eta egoki diren arau aldaketak egitea ere, lortze aldera aukera honek, zeina ikuspuntu guztietatik hain onuragarria baita, ahalbidetu ditzan enplegu-sorrera, energia berriztagarrien aldeko apustua eta ingurunearekiko errespetua.”

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu egiaz eta zeharo inplika dadin Tuterako KPF enpresako lan-gatazka konpontzen.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du oso kezkatuta dagoela Tuterako KPF enpresako lan-egoerarengatik, eta hauxe deklaritzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egiaz eta zeharo inplika dadin Tuterako KPF enpresako lan-gatazka konpontzen,

konpainiak Tuteran duen jarduera eta lanpostuak mantentzea lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio KPF enpresako plantillari.

3. Nafarroako Parlamentuak SKF enpresari eskatzen dio erantzukizunez joka dezan arestiko puntuei dagokienez.”

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2014-2020 Osasun Plana oso-osorik, Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen bezalaxe, betetzeari buruzkoa.*EVA MARÍA GORRI GIL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eva María Gorri Gil andreak aurkeztutako galdera, 2014-2020 Osasun Plana oso-osorik, Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen bezalaxe, betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Ba al duzu asmorik 2014-2020 Osasun Plana oso-osorik betetzeko, Nafarroako Parlamentuak irailaren 16an onetsi zuen bezalaxe?

Iruñean, 2014ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Eva María Gorri Gil

Galdera, Foruzaingoaren burutzak manifestazioetara deitzeari buruzkoa.*VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren burutzak manifestazioetara deitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Foruzaingoaren burutza-organoek posta elektronikoko zenbait mezu bidali dituzte kidego horretako barne-helbide batzuetara, Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko Elkartearen izeneko talde politiko batek Estatuko segurtasun indarrei babesa emate aldera antolatutako manifestazio-deialdi

baten afixarekin. Horren berri izan ostean, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Ohikoa al da Foruzaingoaren burutzak manifestazioetan parte hartzera deitzea? Horri buruzko ikerketarik abiarazi al da?

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, C hepatitisaren duten gaixoak senda ditzaketan medikamentuak emateko erabakiaren aplikazioari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, C hepatitisaren duten gaixoak senda ditzaketan medikamentuak emateko erabakiaren aplikazioari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Orain dela gutxi jakin dugu Osasun Ministerioa planteatzen hasi dela C hepatitisaren duten gaixoak senda ditzaketan medikamentu garestiak emateko aukera. Lurralde arteko Kontseiluaren bilera batean gertatu da hori.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari Osasuneko kontseilariari:

- Nafarroako Gobernuak ba al daki erabaki hori nola, noiz eta zer kosturekin aplikatuko den? Horrenbestez, ba al daki erkidegoek eta zehazki Nafarroak nola egingen dioten aurre horri?

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Nafarroaren kontabilitate-sistemaren makromagnitudeak kalkulatzeko SEC-2010 arau berriari buruzkoa.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroaren kontabilitate-sistemaren makromagnitudeak kalkulatzeko SEC-2010 arau berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Goicoechea andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroaren kontabilitate-sistemaren makromagnitudeak kalkulatzeko SEC-2010 arau berria baliatzeko? Zer inpaktu pentsatzen da izanen duela BPGaren, defizitaren eta azken urteotako zorraren kalkuluan eta 2015erako aurreikuspenetan? Nafarroako Gobernuaren aurrekontu politikan eraginik izanen al du?

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak Foruzaingoa Espainiako Itzuliak Nafarroan egindako etapako trafikoaren kontrolatik at uzteko izan zituen arrazoiei buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak Foruzaingoa Espainiako Itzuliak Nafarroan egindako etapako trafikoaren kontrolatik at uzteko izan zituen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak 2014ko urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak zer arrazoi izan zituen Foruzaingoa Espainiako Itzuliak Nafarroan 2014ko irailaren 3an egindako etapako trafikoaren kontrolatik at uzteko?

Iruñean, 2014ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, 2014-2020 Osasun Planari eta plana taxutzeko prozesuari buruzkoa.

EVA MARÍA GORRI GIL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eva María Gorri Gil andreak aurkeztutako galdera, 2014-2020 Osasun Planari eta plana taxutzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2014-2020 Osasun Planari eta plana taxutzeko prozesuari dagokienez, hauxe jakin nahi dut:

– Osasun Kontseiluko kideek zer ekarpen egin dituzten, aurkeztutako eta baztertutako alegazioak zein diren, eta baztertutakoak zer dela-eta baztertu ziren. Zer epe ezarri den ekarpenak aurkezteko.

– Herritarrek parte hartzeko prozesuan zehar Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legea betez jasotako ekarpenak, arestiko puntuan eskatutako xehetasun berekin. Zer epe ezarri den ekarpenak aurkezteko.

Iruñean, 2014ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Eva María Gorri Gil

Galdera, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitakoen kostu ekonomikoari buruzkoa.

EVA MARÍA GORRI GIL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eva María Gorri Gil andreak aurkeztutako galdera, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitakoen kostu ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

– 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak 2014ko irailaren 16an onetsitakoen kostu ekonomikoa.

Iruñean, 2014ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Eva María Gorri Gil

Galdera, haur-obesitatea dela-eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak egindako txostenari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, haur-obesitatea dela-eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak egindako txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak eskola-kirolari buruz egindako txostena, zeinean ohartarazten baitu Nafarroan haur-obesitatea hazi dela.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa- eta errentamendu-kontratu Los Arcos Motorsport-i esleitzeari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa- eta errentamendu-kontratu Los Arcos Motorsport-i esleitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak idatziz erantzun dezan:

– Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa- eta errentamendu-kontratu Los Arcos Motorsport-i esleitzerakoan zenbateraino izan zen erabakigarria egoitza Valentzian duen Always Sports enpresaren eskarmentu profesionala? Enpresa esleipen-hartzaileak akziodun izateari eta zirkuitua kudeatzeari utzi izanak inolako ondorio juridikorik izan al dezake?

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, animalianganako tratu txarrak direla-eta jarritako salaketen izapidetzeari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, animalianganako tratu txarrak direla-eta jarritako salaketan izapidetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Animaliak babesteari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea indarrean sartu zenez geroztik, animalianganako tratu txarrei buruzko milaka salaketa aurkeztu dira.

Foru lege horretan animalianganako tratu txarrei dagokienez ezarritakoa dela-eta, honako hau galdetzen diogu Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Gaur egun nola izapidetzen dira animalianganako tratu txarrak direla-eta Sepronak, Foruzaingoak, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak, udalek, partikularrek eta animalien defentsarako elkarteek Nafarroako Foru Komunitatean jarritako salaketak?

Zer erakunde publikok jasotzen eta izapidetzen ditu salaketak?

Zenbat salaketa jarri dira azken hamar urteotan? Horietako zenbat izapidetu dira? Zenbatetan abiarazi da zehapen espediente bat, eta zenbat artxibatu dira? Zergatik?

Iruñean, 2014ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa berrantolatzeko Planaren garapenari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa berrantolatzeko Planaren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva

Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa berrantolatzeko Planaren garapenari dagokionez, honako hau jakin nahi dut plan horren lehen aplikazio-urtean zehar saldutako higiezin-arloko aktiboak eta bestelako aktibo batzuk direla eta:

– Egindako salmenta-operazioen zerrenda banakatua, ondokoak zehaztuta: aktiboak, erosleak (enpresak edo entitateak) eta izandako diru-sarrerak.

– Alokairu eta erreserben zerrenda banakatua, ondokoak zehaztuta: aktiboak, diru-sarrerak eta operazioak zer pertsona edo entitaterekin egin zituzten.

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz